

EUSKERA INDARTZEKO SAIOAK

Iaz lau hiletan jolasen bitartez elkar ezagutu ondoren, aurten ikasturte osoan zehar izango ditugu Durangora etorri berri diren umeak gurean.



5-12 urte bitarteko ume eta gaztetxoei, herriak eskaintzen dituen baliabideak, hizkuntza eta bertako ohiturak ezagutzen laguntzea da udalak antolatu eta Berbarok kudeatzen duen programa honen helburu nagusia. Aurten, hiru begiralaren laguntzaz, 66 ume hartzen dute parte saio hauetan Berbarorekin. Bestalde, Abarrak AEK-k dinamizatzen duen beste adin talde batek (13-16 urte bitartekoak) ere, asmo berdintsuarekin dihardu. Asteon, bisitatxo bat egin diegu euskera ikasten ari diren gaztetxo hauei eta, bide batez, saioetan egiten dituzten ekintzetatik gehien zer gustatu zaien galdetu diegu. Lau lagunen erantzunak ekarri ditugu buletinera:

- Izena: Luciano
- Adina: 10 urte
- Jaioterria: Senegal




Bere anai-arrebekin batera orain aste gutxi hasi da Luciano saioetan parte hartzen eta mota guztietako jokoak ditu gustoko.

Durangora heldu berria da Maite eta oraindik euskara asko ulertzen ez badu ere, mozzorro eta txotxongiloekin ibiltzen dela gusturen esan digu.



- Izena: Maite
- Adina: 5 urte
- Jaioterria: Bulgaria

- Izena: Alfonso
- Adina: 6 urte
- Jaioterria: Ekuatore Ginea



Berba ugari egiten du Alfonsok eta kirolean aritzea gustatzen ei zaio, futboleko egitea batez ere.

Pasa den ikasturtean ere etortzen zen Esther saioetara, bere neba-arrebetako hirurekin batera. Mozzorroñu eta antzerkia egiten ibiltzen da gusturen Esther.



- Izena: Esther
- Adina: 9 urte
- Jaioterria: Bolibia

Berbalagun herrialdea: komedia eta komeriak

Komedia, jatorriz, genero dramatiko da, besterik uste badugu ere. Protagonistek eguneroko zailtasunei egin behar die aurre, baina iseka egiten die gizon-emakumeen ahultasunei, eta amaiera zorionsua dauka.

Berbalagun egitasmoa komedia batekin parekatzea ez da errealitatefik urruntzea. Komedianteak gara **berbalagunok**, berritsuak eta gezurtiak, harroak eta maltzurak, maiteminduak eta inuzenteak, arduragabeak eta arduratsuak..., besteen modukoak.

Elkartu egiten gara, eta gure bizipenak erkatu. Antzeztu egiten dugu, batzen gaituena komedia da, protagonistok barre egiten dugu, eta negar. Baina dakizue, berbarotar maiteok, komediak amaiera zorionsua du beti.

Berbalagunon patua da, zer egingo diogu ba?

Komeriak

Aurten 100 **berbalagun** inguru batu gara hainbat taldetan banatuta. Seigarren urtez jarraian ari gara batzen, talde bakoitza bere txoko kutunean. Planak egiteari ekin diogu: eskapadak, bisitak, afariak... Hilean-hilean eskualdean euskeraz gozatzeko ditugun menuak bidaltzen dizkigu koordinatzaileak. Denetarik egoten da "jateko": antzerkia, zinea, musika, umekin joateko ikuskizunak, hitzaldiak eta abar.

Informazio praktikoa topatuko dugun bloga ere hor



dago: <http://durangaldea.blogspot.com/>.

Gonbite egiten dizuegu, bisitatu ez ezik, erabili dezazuen, bizitu dezagun.

Duela 6 urte hasi ziren komeriak, bai. Nahasia, sarri barregarria, osasungarria..., holakoa da **Berbalagun** herrialdea. Hurrengoan **berbalaguntarrak** hartuko ditugu hizpide.

Ahoan euskeraz gozo

Aurreko buletinean azaldu bezala, ostalarientzako kanpaina berria antolatu dugu. Horregaitik, azaroan, informazio esku-orriak banatu ziren ostalaritza establezimenduetan, 2009rako gure asmoak azalduz.

Lehenik eta behin **Ahoan euskeraz gozo** ekimenaren berri eman genien. Ahozapiak banatuko zaizkie opari; bertan irakur dezakegun leloak euskara erabilitea zein atsegingarria den gogorarazten digu.

guk
ahon euskeraz gozo

Bezera euskaldunengana ailegatu gura genuke, euren esku baitago euskara aukeratzea.

Gainera, herriko ostalaritzan euskararen presentzia handitzeko, udalaren itzulpen eta hizkuntza aholkularitza zebitzuari buruzko informazioa eskaini egin zaie. Honez gain, ostalarientzako ikastaroak antolatu nahi ditugula jakinarazi diegu, eta ostalari batzuk hasi dira izena ematen. Urtarrilean zabalduko da matrikulazioa epea. Zerotik hasteko taldeak osatzea da helburu nagusia. Hala ere, interesa duten guztiek eman ahal izango dute izena. Honela, ratio minimora helduz gero, beste maila bateko talde arrunta sortuko genuke.

Betiko moduan, zure laguntza eskatzen dugu: euskara ikasteko prest dagoen ostalaririk ezagutzen baduzu anima ezazu. Eta ez ahaztu modan jarri nahi dugun lelo berria; lagunaren artean, familia giroan, dendetan, tabernetan-eta gogoan eduki eta proposatu: **Ahoan euskeraz gozo**

Haur literatur aretoa


Haur Literatura Artea... urteroko aretoa, urteetako proiektua! Baina zer egin urte batetik bestera berdina ez izateko, zer egin Durangaldeko 6 herritako 6.330 umerentzako gero eta erakargarriagoa egiteko eta, batez ere, kalitatea urterik urte hobetzeko?

Erakusketa girotuan burutu ditugu berrikuntza nabarmenenak: dekorazioa hobetu eta ginkana berezi bat antolatu dugu ekintzen artean.

Zornotzan hasi eta Durangoraino hainbat idazle pasatu dira gure aretotik: Pako Aristi, Antton Irusta, Unai Elorriaga, Miren Agur Meabe, Txiliku, Leire Bilbao eta beste asko.

Ipuin antzeztu, antzerki eta ipuin kontalarien saioak ere balorazio oso onak jaso dituzte.

Beraz, aurten ere, pozik gaude egindako lanarekin!



Ludoteka

Elorrioko

Urriaren 27an jarri genuen martxan Elorrioko ludoteka.

3 urtetik 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoei zuzendutako aisialdirako "alternatiba" bat izango da ikasturtea bukatu arte.

Iturrin kokatzen den lokalean 33 umek parte hartzen dute eta, 4 begiralaren ardurapean, hainbat ekintza

burutzeko aukera dute txokoetan banatuta: eskulan eta marrazketa, irakurketa, mahai-jolasak, eraikuntza eta sinbolizazioa.




Euskarazko jolasen eta aldizkariaren txokoa

Aurten ere antolatu dugu euskarazko produktuak ezagutarazteko txokoa, bigarren urtez.

Produktu berriak eta aurreko urteetakoak era dinamikoan hurbildu dizkiegu Lekeitioko eta Elorrioko ume, gazte eta gurasoei. Euskarazko jolas eta aldizkari berrien erakusketa soil bat egin beharrean, ginkana eta xixuko jolasaren bidez erakusketa partehartzailea antolatu dugu. "Aldizkariaren txokoa" aldizkariaren komikiak, elkarrizketak... irakurri dituzte eta denbora-pasak egin.

"Jolasen txokoa", ordea, jolas berriak ezagutu eta hauekin jolasteko aukera izan dute.



Poltsa bete euskeraz

Aurreko buletinean aipatu genizuen, Berbaro eskualdeko euskarari buruzko azterketa egiten ari da Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren eskariz. Azterketa aurrera doa eta urte hasieran ezagutuko ditugu emaitzak.

Horrez gain, ekintza osagarriren bat antolatzeke eskaria ere egin zigten. Aukeratutako ekintza "Poltsa bete euskeraz" izan da eta, beraz, hirugarren urtez egingo da sentsibilizazio kanpaina hau.

Kanpaina indartu egin dugu oraingoan, euskarri eta banaketa bereziekin; 2009ko lehenengo Anbotoarekin batera "Poltsa bete euskeraz" lelodun 9.000 poltsa inguru banatuko dira. Kontsumitzaile zein saltzaile izan, merkataritzan euskera erabiltzera gonbidatu nahi zaitugu!



argitalpen berriak



Aurrean katalogo bi dituzue: "Euskarazko produktuen katalogoa" eta "Haur eta Gazteentzako irakur gida". Opariak egiteko sasoian gaude eta aukera ezin hobea da euskaraz argitaratzen diren liburu edota jostailuak erosteko. Gida hauen helburua da, besteak beste, guraso, hezitzaile, gazte eta umeei euskaraz argitaratzen diren produktuen berri ematea, informazio praktikoa helaraztea (zein adinetarako zuzenduta daude, azken nobedadeak...), prezioa, argitaletxea.

• **Euskarazko produktuen katalogoa**

www.katalogoa.org web gunean eskuragarri duzue eta bertan pdf formatuan deskargatzeko aukera ere baduzue.

Aurten 266.000 ale inguru banatu dira Euskal Herri osoan.

• **"Haur eta gazteentzako irakur gida"**

Irakur gidan, 2 eta 14 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendutako 2007ko liburu gomendagarrien eta 2008ko argitalpen berrien zerrenda ikus daiteke. Aurten 6.000 ale argitaratu dira, Durango, Zornotza, Berriz, Zaldibar, Elorrio eta Lekeitioko eskoletako umeen artean banatu dira.

Beste barik, irakurle, ondo erosi.

ikimilikili. klik

Gaur egun dena topatu daiteke sarean eskegita. Beno, dena-dena ez bada ere, gauza asko egin daitezke pantaila aurrean: bankuko eragiketak, erosketa, solasaldiak, bidaiak, besteak beste. Zaila da asmatzea aurrerantzean zer gehiago egin edota ikusi ahal izango dugun internet bidez. Teknologia "fontorra" dugu egunero esku artean ordenagailuak eta, nola ez, telefono mugikorrak.

Eleberririk sarean eta mugikorretan:


Xabier Amurizak "Orain ezin naiz hil" nobela berria eskegi du www.amurizablogxabier.com bere web gunean.

Nobela hau web gunean bakarrik eskuratu ahal izango da, nahi duenak doan eta laguntzeko borondatea duenak, ba horixe, sartu...

Ildo honetatik datorkigu "Liburuak mugikorretan" izena duen aplikazio berria. Euskal Herrian eta Estatu mailan egiten den lehenengoa da.

Eleka Ingenieritza Linguistikoa, Bluxare eta Alberdania enpresak elkarlanean, liburuak eskuko telefonoetan irakurtzeko plataforma bat garatu dute, "Liburuak mugikorretan" izenekoa.

Aplikazio horren bidez, liburuak telefono mugikorretara deskargatu ahal izango dira. Proiektu honen helburuetako bat da gazteen artean irakurtzeko zaletasuna indartzea eta literatura kontsumoa handitzeko plataforma teknologiko berritzailea garatzea.



Urteko azken bertso saioa

Ohiturei jarraituz, aurten ere urtea ondo amaitzeko bertso saio bikaina dugu:

Abenduaren 30ean, 22.00etan Plateruena Kafe Antzokian. Sarrera 5 € (bazkide ez direnentzat 9 €)

bertsolariak

Maialen Lujanbio
Sustrai Colina
Xabi Paya
Igor Elortza
Unai Iturriaga